

UDAKO OPORRALDIA
 Hurrengo GOIENA eta
 Puntua aldizkariak
irailaren 1ean
 jasoko dituzue.

Ondo
 izan!



IRTEERARAKO GERTU

Bihar, zapatua, izango da intentsitate handieneko eguna / 2

XABIER URZELAI

Aramaiok, musika sustraletan

1.500 bizilagun inguru ditu Aramaiok, eta hamar musika eragile; esate baterako, hiru abesbatza / 12

SINADURAK

 OSKAR ELIZBURU / 6	 MAIALEN MADARIAGA / 19
 ANE ZUZUBISKAR / 8	 LUKENE IGARTUA / 27
 MIKEL ARROABE / 14	 IDOIA ETXEBERRIA / 40

Edesa Industrialek iragarritakoari eutsi dio: berogailuak, lapikoak eta termoak ekoizteko asmoari / 2

UDAko kideek emango diete hasiera Aretxabaletako Andramaixa jaiei, abuztuaren 14an / 15

2017an hamabi salaketa jarri dituzte Arrasaten indarkeria matxistarengatik; azkena, domekan / 8

40 ekitalditik gora Kilometroak 2017 egunean, Oñatiko 5,8 kilometroko zirkuituan / 4

3.000 plegu inguruz osatutako herbarioa osatu du Jose Antonio Aperribai bergararrak / 18

Oraingo astean bukatuko dituzte Antzuolako hilerriko zubia konpontzeko lanak / 24

ABUZTUAN ZABALIK

Abuztuaren 1etik 14ra
Astelehenetik ostiralera
09:30-18:30

Abuztuaren 16tik 31ra
Astelehenetik ostiralera
09:30-17:30

Larunbatak: 09:00-13:00

LIRAIN
ESTETIKA ZENTROA



943 79 52 17 Bizarte Ferrer, I.
20500 ARRASATE

NPS: 48/14 Ez da osasun zentroa

Willis Drummond eta Huntza, Kilometroak jaian

40 ekitalditik gora izango dira Oñatin ospatuko den Kilometroak 2017 egunean; egitarau oparo horretan, besteak beste, umeendako eskaintzak eta musikak hartuko du zati handia, eta azken atal horren barruan talde entzutetsuak bertaratuko dira

Ubane Madera OÑATI

Gutxi falta da irailaren 24rako, aurtengo Kilometroak jaia ospatzeko. Eta antolatzaileek, Txan-txiku Ikastolako kideek, guztia –edo ia guztia– dute lotuta.

Umeendako, gazteendako...

Horren erakusle da oraingo as-tean jakinarazi duten egitaraua: Kilometroak 2017 jaiak izango dituen 5,8 kilometroko zirkuituan 40tik gora ekitaldi antolatu dituzte, lau gunetan banatuta –egitarau osoa ondoko taulan–.

Eta egitarau horren baitan, musika, antzerkia, dantza eta *Erronka* izango dira protagonista nagusiak. Izen batzuk aipatze aldera, Anje Duhalde, Willis Drummond, Sharon Stoner eta Huntza taldeen kontzertuak ikusteko aukera izango da, baita Tio Teronen Semeak-en eta Oihulari Klownen ikuskizunak ere. Eta, besteak beste, Artzain Txakurkuren Txapelketa ere egun horretan egingo dute.

Egitaraua gunez gunez

Kilometroek jaiak lau gunez izango dituzte: lehen gunean, Foruen plazaren eta frontoiaren artean, egingo dute hasiera ekitaldia. Bigarren gunea Haurren Hiria izango da. Eta hirugarren eta laugarren gunek musikari eskainitakoak izango dira, bereziki. Horiez gain, Euskal Kulturgintza eta Artisautza Feria izango da Eroskiko aparkalekuan 10:30ean eta kiroldegian bazkaria 12:30etik 15:30era. Olaiturri Kultur Elkarteak hiru antzerki emanaldi egingo ditu, aldi berean, Zumeltzegein, Unibertsitatean eta Lazarragan, 12:00etan, 13:00etan eta 15:30ean. Ibilbidean zehar, Joareak, Ttek Elektroxaranga, Kalejira Perkusioa, Dultzainak

Txaranga, Trikitilariak, Sakatu Elektroxaranga eta EH Batukada Feminista arituko dira.

1 IKASTOLA

- **09:30** Irekiera ekitaldia.
- **10:00** Udaberri Dantza Taldea, plazan.
- **11:00** Hutsun, plazan. Ordu berean, Kulki, haur eta ume euskal jolasak, frontoian.
- **11:30** Omenaldia, Santa Ana antzokian.
- **12:00** Herrixa Kantuan, plazan.
- **12:30** Tio Teronen Semeak, plazan.
- **13:30** Bertsoak, plazan. Ordu berean, dantza tailerra frontoian.
- **14:00** Oxabi, plazan.
- **14:30** Txatxilipurdi, haur eta ume jolasak, frontoian.



Willis Drummond taldeko kideak. WILLIS DRUMMOND

3 ASENTZIO

- **10:00** Axi Muniain, *Carver* erakustaldia
- **10:00** Trini Fox.
- **11:00** Erronka.
- **11:30** Beñat Igerabide.
- **13:00** Erronka.
- **13:30** Oihari Vega.
- **15:00** Errebal.
- **16:00** Egurra eta Kitto!
- **17:00** Perlak.

2 SAN MARTIN

Haurren Hiria

- **10:30** Nazioarteko Artzain Txakurkuren Txapelketa.
- **11:00** Txatxilipurdi, haur eta ume jolasak. Ordu berean, Inguruabentura eta Erronka ere egongo dira.
- **11:45** Joseba Irazoki eta Lagunak.
- **13:00** Erronka.
- **13:30** Sharon Stoner.
- **14:30** Arkada Social.
- **15:15** Erronka.
- **15:30** Herstura.
- **16:30** Huntza.
- **17:30** Willis Drummond.

laburra dela. Oraindik kontsumo denbora da neurgailua, baina ez dakit etorkizunean horrela neurtzen jarraituko den. **Telebista ikusten duten bitartean ohikoagoa da gazteen artean beste gailu batekin egotea?** Bigarren pantailaren erabilera ohikoa da. Aldea dago ze neurritan duten gustuko telebistan eskaintzen duten eduki hori. Baina bai, aldi berean telebista ikusteaz gain, pantaila horrekin –normalean, smartphonea– beste gauza batzuetan ibiltzen dira. Eta sarritan, bigarren pantailan egiten dabilzan horrek ez du zerikusirik telebistan eskaintzen dabilzanarekin. **Telebista kateak arduratzeko moduan daude ondorioak kontuan hartuta?** Interneteko zurrumbilao eta iraultza hasi zenetik kezka bizi di-

rela uste dut, ikus-entzunezkoak ikusteko aukera oso zabalak eskaintzen ditu eta, kalitate oso onarekin, gainera. Horregatik, etengabe egokitu nahian daude, estrategiak diseinatzen. Youtube 2005ean sortu zela kontuan hartuta, eta gaur egun duen indarra ikusita, alertan egoteko modukoa bada. **Internetera ikus-entzunezkoen bila jotzen dutenean gazteek nora jotzen dute?** Interneten bide nagusiak, alde nabarmenarekin, Youtube eta Facebook dira. Zer bilatzen duten? Gazteek ohiko telebistek eskaintzen ez dizkieten edukiak bilatzen dituzte. Deigarria da Interneten ikus-entzunezkoak kontsumitzerakoan ikusten den hori, askotan, lotuta dagoela gazteen zaletasunekin eta aisialdiarekin.

Ederra izan zen, ederra izango da

AIZPEA OTXANDIANO

ARRASATEKO SORTUREN IZENEAN ARRASATE

Uztailaren 21ean ospatu genuen Irati Tabernaren eta Arrano Elkartearen azken jaia. Arratsalde-gau –eta, zergatik ez, goizalde– ederra izan zen.

Ederra, hilabetean zehar ekintzak antolatzen ibili den lantaldeak mimo eta lan handiz antolatu zuelako jaia. Ederra, sukalde eta zerbitzatze lanetan ibili zirenek, *txef-en lehen* garai honetan, ekipoan eta maitasun handiz egindako etxeko janaria bezalakorik ez dagoela gogorarazi zigutelako. Ederra, 200 laguneko afarian, giro ezin hobean, konpainia, tertulia, kantu eta kontu ezberdinez gozatu ahal izan genuelako. Eta ederra, gure herriarentzat etorkizun hobe bat marraztu eta eraikitzen

4 BEREZAO

- **11:00** Erronka.
- **11:30** Herri kirolak, Natran.
- **11:45** Joseba Irazoki eta Lagunak.
- **13:00** Erronka.
- **13:30** Sharon Stoner.
- **14:30** Arkada Social.
- **15:15** Erronka.
- **15:30** Herstura.
- **16:30** Huntza.
- **17:30** Willis Drummond.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapitaluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapitaluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Oñalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

Amodio-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali ***gutunak@goiena.eus*** helbidera!

Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna

ereduak ikusarazi ditzala eskatzen.

Disneyren pelikulek mundu osoan –umeengan– duten eragina ezagututa, ez da berria LGBTI mugimenduen eskaera: gizartearen dauden bestelako familia eredu, sexu-joera eta genero-identitate anitzak erakutsi ditzala filmetan.

Eman Elsari neskalaguna:

Iaz adibidez, kanpaina arrakastatsua egin zuten sare sozialetan, *Frozen* filmeko Elsa erreginak hurrengo pelikulan neskalaguna izan dezala eskatuz. Hori bai, #GiveElsaAGirlfriend aldarriak kontra-kanpaina gogorra ere jasan zuen, euren seme-alabak perbertitzea litzatekeela uste duten guraso ugariren haserre tarteko. Printzesa lesbiana bat, jakina, aurrerapausoa litzateke aniztasuna normalizatze bidean, baina oraingoz ez du horrelakorik baieztatu Disney ahaltsuak.

e-mail bat edo jakinarazi Sortuko kideren bati.

Orain artekoa bezala, pasa den ostiralekoa bezala, etorriko dena ere ederra izango da.

Jarrai dezagun elkarrekin amesten: asko daukagu amesteko, eta asko irabazteko!

Printzesa lesbianarik ez, oraingoz

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

HTTPS://LABUR.EUS/H3TCK

Hainbat hedabidek

argitaratutakoari kasu eginez, Disneyren film batean printzesa protagonista lesbiana izango dela publikatu dut, baina dauzkagun eronketarako laguntza eske ere bagatoz. Eraberritzeko lanak abiatu ahal izateko auzolana egingo dugu. Bi hitzordu jarri ditugu: atzo eta gaur, egubakoitza, 17:00etan. Parte hartzeko aukera izanez gero, eman izena Irati Tabernan, bidali



ZABALIK

OSKAR ELIZBURU

Euskararen aktibistak

Oraindik ere emozioa sentitzen dugu Korrika gogoratzen dugunean, zenbat jende bildu zen gure eskualdean, zenbat lagun aritu zen batzordeetan, zenbat kilometro diruz lagundu ziren, zenbat arropa, txapa eta peto jantzi zituzten debagoiendarrek, zenbat ekintza euskararen inguruan...

Korrika garaian herritar guztiek euskararekin bat egiten dutela sentitzen dugu, eta horrek demaseko indarra ematen digu lanean jarraitzeko...

Euskararen mundu horrekin *zuk* askok egin zuten *bat*: oraindik ere euskara ikasi behar duten askok, hobetu behar duten askok, oraindik egunero erabiltzen ez duten askok. Eta gogo horrekin jarraitzeko beharra dago, egunero ikastea eta erabiltzea derrigorrezkoa da euskaraz bizitzeko aukera izan dezagun.

Azken urteotan erabilera indartzeko programak eta ekintzak izan dira Egian, Lasarten... baita gure eskualdean ere *-1.000 baietz...-*; merkataritzan euskara gehiagotan erabiltzeko konpromisoa eman genuen 1.000 pertsonak Arrasaten... Egia esan, euskara gehiago entzuteko eta jendeak gehiagotan erabiltzeko hainbat gauza hartu behar dira kontuan:

-Alde batetik, dauzkagun aukera guztiak ez ditugu erabiltzen; gure inguruan, erdiek baino gehiagok euskaraz egiteko moduan euskara dakite eta lehen hitza euskaraz egiteko beldurra kendu behar da.


-Bestetik, ez dakitenek ikasten hastea, ulertzeko eta berba egiteko maila lortzeko, komunikaziorako traba ez izateko.

-Azkenik, hori guztia martxan jartzeko erraztasunak, ekintzak, finantziazioa... Gizarte eragileon eta administrazioaren artean elkarlanean eginda, ondo planifikatuta, jendearen ideiak, asmoak eta gogoia batuta.

Hori guztia egiteko plana lantzen ari gara Arrasaten euskararen munduko eragileen eta Udalaren artean, eta *euskararen aktibisten fabrika eraiki nahi dugu*, Korrikan erakutsitakoa urte osoan zehar mantentzeko.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Benetakotasuna

GOIZALDE LANDABASO

HTTPS://LABUR.EUS/VOOFO

Dena aldatzen ari da. Bizkor baino bizkorrago. Gure alde zaharretatik osteratxua eman, eta atoaan jabetuko zara zerbait falta dela. Beste hirien gero eta antzerakoagoak dira, gara. Denda batera sartu, eta ez dakizula non zauden, dena berdina iruditzen zaizula? Lasai, ez zaude oker, globalizazioaren aurpegirik okerrenak jo gaitu. Pertsonalitatea galdu dute gure hiriek. Uniformizazioa. [...]. Baiona Ttipitik ibili nintzen lehengoan, eta zelanbait eutsi egin diotela

begitandu zitzaidan; ziurrenen, bertakoren batekin solas eginez gero, esango dit hagitz aldatu dela. Baina alde zahar guztietatik gutxien aldatu dena dela esango nuke. Zaharra dena baztertzen da, zahar den orok izutu egiten du gizarte hau. [...]

Bilbon baziren eutsi egiten zuten gotorlekuak; bat aspaldiko taberna bat zen. Musika bikaina, giro ezin hobea, afaltzeko aukera zoragarria, garagardoak edateko aproposa, kokagune ona... itzel maite izan dut beti taberna hori, nire bizitzaren geografia egin nezake taberna horretatik abiatuta. Zazpikaleetako azkenengoetarikoa. Duela

egun batzuk, berriztatura sartu nintzen, eta sentimendu arrotz batek harrapatu ninduen. Musika ezberdina, garagardo kutuna desagertuta... Gauza (eta pertsona) autentikoak maite ditut, ez simulakroak; eta simulakroz bete zaigu hiriaren bihotza. Dagoeneko, ez gara gu, besteak gara. Ruth Glass soziologoak asmatu zuen *gentrifikazio* berba 1960ko hamarkadan. Batzuk sormenezko suntsiketa deitu diote hirietan egiten ari direnari. New Yorken eta Berlinen ere pasatzen ari da, Londresen eta Bartzelonan. Baina han ez zegoen taberna hura, taberna bertan zegoen, eta dagoeneko, ez dago.

EGUBAKOITZA 2017-07-28 GOIENA ALDIZKARIA

GOIENA ALDIZKARIA 2017-07-28 EGUBAKOITZA

PROTAGONISTA

"Boisen jende piloarekin hitz egin dezaket euskaraz"

HENAR CHICO BOISEN BIZI DEN JARDUN EUSKARA ELKARTEKO BAZKIDE BIZKAITARRA

Ubane Madera BERGARA

Bois-en (Idaho) bizi da orain dela 21 urte Henar Chico (Bilbo, 1973, "baina bizitza osoa Ortuellan eman nuen"). Lagunak bisitatzen izan berri da, besteak beste, Bergaran. Izan ere, Jarduneko, Bergarako Euskara Elkarteko, bazkide da. **Boisen bizi den bizkaitarra Bergarako euskara elkarteko kide... zelan iritsi zara horra?**

Orain dela 10 urte-edo blog bat lantzen hasi nintzen, EITBn; Euskal Herriko kontuak sartzen ditut noizbehinka. Behin hasi nintzen Bergarako Amodiozko Gutunen Lehiaketa sartzen, eta hasi nintzen Jarduneko neskekin harremanetan orain dela bost urte, posta elektronikoz. Orain, Bergaran egon naiz, eurak ezagutzeko. Bestalde, iaz bazkideak lortzeko kanpaina egin zuten eta bazkide bihurtu nintzen... Eta lehiaketan bi aldiz ere parte hartu dut, ze gustatzen zait euskaraz idaztea, nahiz eta oso zaila egiten zaidan, nire hirugarren



Henar Chico. HENAR CHICO

hizkuntza delako. Baina erronka da niretzat. **Euskara hirugarren hizkuntza duzula esan duzu; Amerikan ikasi duzu?**

Euskal Herrikoa naiz eta ikastolara joan nintzen. Baina

Ortuella oso erdalduna da, eta ez nuen euskara erabili. Gainera, hasi nintzen bizkaieraz ikasten, eta gero aldatu zuten batuerara, baina nire txipa ez zen aldatu eta oso-oso zaila egiten zitzaidan

GORA ETA BEHERA



Bidegorriari jarraipena emango diote

Pozik azaldu dira bidegorriak erabiltzen dituzten bi irakurle. Jakin dute Arrasatekoak jarraipena izango duela: Aretxabaletatik datorren bidegorria, Fagor atzetik pasatu ostean, luzatu egingo du Arrasateko Udalak.

Izan ere, bertaraino iritsi eta gero, errepidea gurutzatu behar izaten dute, eta errespetu handia eragiten die horrek, ibilgailu asko pasatzen direlako handik.

HAU BE BADOGU!

Musikak presentzia, '#HTX20' bidez



Hatortxu Rock musika jaialdiak 20 urte betetzen ditu aurten, eta, hori dela eta, *#HTX20* traola erabilienetakoa izan da asteon Twitterren, euskal txiolarien artean. Jaialdiak sekulako musika bandak elkartu ditu urteurren berezia ospatzeko, eta, atzo hasi arren, aste bukaerara begira daude musikazaleak:

@Hatortxurock: "#HTX20 Dena prest Euskal Herriko elkartasun jaialdirik handienari ekiteko. 84 taldek osatuko dute kartela!"

Udan ere euskarazko traolak sare sozialetan

Opor eta festa giroan murgilduta daude Euskal Herriko herriak eta sare sozialetan ere argi eta garbi islatzen da hori. Asteon *treanding topic* izan dira *#jaiak* eta *#oporrak* traolak. Txupinazo asko daude inguruko herrietan, eta Soraluzen, esaterako, susto ederra izan zuten: *@112_SOSDeiak*: "Bi pertsona zaurituak eta bertan artatuak, txupinazoa ikustera bildutako jende arteen suziri bat erori eta gero".

Kataluniako erreferendumaren alde

#Demokrazia traola *treanding topic* izan da, Gure Esku Dago ekimenetik irailaren 16rako manifestazioa deitu dute eta, Kataluniako erreferendumari babesa erakusteko.

@GureEskuDago: "Demokrazia eta erabakitzeko eskubidea babesteko unea da. Irailaren 16an manifestazioa Bilbon. *#Demokrazia #BozkatuErabakitze*ko".

@iko_stx: "Euskal Herrian ere *#demokrazia*-ren alde gaudelako babesten dugu *#referendumCAT!*".

goiena[“]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Sailtetako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea
Amaia Mundiñano, Ziertra Martin, Imanol Eiorza, Jokin Urbeebereberria.

Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gañtzaraman.

Diseinu arduraduna
Itzi Iturbe.

Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna
Marta Leturia.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Ubane Madera, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Aranztzabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.
Erredaktore burua
Ubane Madera.

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kubxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
bertak@goiena.eus

Legu Gordinluz: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia

Arrasateko Udala

Bergarako Udala

Oñatiko Udala

Aretxabaletako Udala

Eskoriatzako Udala

Antzuolako Udala

Aramaioko Udala

Egetako Udala

Leintz Galtzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

2017an hamabi salaketa indarkeria matxistagatik

Hori da orain arte urteak utzi duen balantzea Arrasaten. Azken erasoa gaitzesteko elkarretaratzea egin zuten atzo Herriko Plazan, eta alderdi politikoek euren kezka azaldu dute zifra esanguratsu horren atzean dagoen errealitatearekiko

Xabi Gorostidi ARRASATE

Emakumeen aurkako biolentzia protagonismo berezia izaten ari da aurtzen, eta hori salatzen herriko plazan egindako elkarretaratzeak ez dira gutxi izan. Azkena atzo, Emakumeen Mundu Martxak deituta, domekako azken erasoa gaitzesteko.

"Erailketa matxistekin batera, emakumeen aurkako sexu bortizkeria eta eraso fisikoak dira emakumeen eta gizonen arteko desorekaren adierazgarri latzenak. Indarkeria matxistak, ordea, aurpegi asko dauzka, eta hau errotik desagerrarazi nahi badugu, ezinbestekoa da herritarren zein erakunde publikoien erabateko erantzukizun eta inplikazioa. Gutako bakar bati erasotzen dioten artean martxan jarraituko dugu!", adierazi du Emakumeen Martxa elkarteak.

Salaketa kopurua

Baina, erasoez gain, salaketa kopurua ere bada errealitate

horri neurria hartzeko beste modu bat, eta 2017ko zazpi hilabete hauek zifra kezagarri bat utzi dute: hamabi salaketa Arrasaten, indarkeria matxistagatik.

Datu kontrastatu hori politikariek eta eragileekin partekatu du Goienak, eta denek azaldu dute horrekiko kezka.

Politikarien erreakzioak

Arrasateko EAJren ustez, "Oso datu txarra da eta argi daukagu gure gizartean pairatzen dugun arazo larri bat dela. Gainera, gaia larriago bihurtzen da datuen arabera erasotzaileak kasu askotan gazteak direla agerian geratzen denean, beti pentsatu den arren belaualdien arteko arazoa zela".

Gaiarekin lotuta, aurreratu dute Arrasateko Udalak martxan daukala biolentzia matxistaren aurkako plan integralaren esleipena (2018-2022), eta irailean onartuko dela. Gogoratu behar

da gaur egun Udalak martxan daukan plana 2006-2010 artekoa dela.

Arrasateko EH Bilduren hitzetan, "hamabi salaketen datua oso serioa eta larria" da. Horri buelta emateko, egun indarrean dauden programak indartzean jarri dute fokua, eta gehitu dute gai estrukturala izanik herri osoari dagokiola horren konpobidean inplikatzeko.

Baleikereren ustez, egoera kezagarria da; are kezagarriagoa, kontuan izanda "eraso ugari ez direla, tamalez, salaketa fasera heltzen". Gaia konpontzeko "tresna instituzionalak martxan jarri eta areagotzea" politikarien arduraren dela esan ostean, gogor kritikatu dute gai hau ez dagoela "Udal Gobernuaren lehentasunen artean".

Azkenik, Irabazik azaldu du hamabiko zifra "astakeria" hutsa dela, eta gogora ekarri du Udal Gobernuak ez duela protokoloa oraindik berritu.

EGUBAKOITZA 2017-07-28 GOIENA ALDIZKARIA

NIRE USTEZ
ANE ZUAZUBISKAR

Hormak

Uda hasieran joan ginen Kubara laguna eta biok, *turista* hitza bekokian itsatsita. Heldu eta astebetera joan ginen Caibariengo hondartzara; ekaitzak harrapatu gintuen, eta alboko taberna txikian babestu ginen. Langileak kontaktu zigun urtero betetzen dutela hondartza hareaz. Iraultza baino lehen harrizko horma lodiek banatzen zutela hondartza, eta alde batean biltzen zirela kolono zuriak, bestean herritar beltzak. Iraultza egin eta aste gutxira bota zituzten hormak, eta irentsi zuen itsasoak hareia. Bereizkeria bakarrrik ez, hondartza ere eusten zuten hormek. Biharamunean joan ginen pareko irletara, eta etzan ginen hareia zurizko hondartza luzean. Oihuka etorri zitzaigun hotel bateko langilea. Ezin genuela hor egon, eta karteletik ezkerretera etzateko, hondartzaren beste ertzean.

Pasa dira aste batzuk, eta aritu naiz, ordutik, hangoa etxera nola ekarri asmatu ezinda. Saiatu naiz metaforari lotzeko zer edo zer idatzi guran, baina ez diot aurkitu neurriko konparaziorik. Inork aurkitzen badu, deitu nazala, mesedez. Ordainduko diot garagardo bat Donostian, edo kafe bat Bidarten.



ARRASATEKO UDALA

Udako kanpainako sarituak

Udako kanpaina sustatzeko, ekainaren 22a baino lehen udako abonua aterata zutenei sariak banatu dizkie Udaleko Kiroi Sailak; 350 lagun zeuden sariak jasotzeko aukerekin, eta horietako zortzi izan dira sarituak: hiru Inguru abentura parkera joan dira eta beste bostak, aldiz, Hontza Extrem abentura parkera. Irudian, Ander Garay, bost laguni saria banatzen.

Udal zerbitzuak gazteleraz kontratatu izana salatu du AEDK

Uztailaren 18an, kiroldegia 40. urteurrena ospatzeko ekitaldia antolatu zuen Udalak, hainbat alkate ohi gonbidatuta.

Baina, horretaz gain, bestelako ekimenak ere izan ziren; adibidez, haurrentzako urpeko jolas batzuk. Ekintza hori dinamizatzeo aukeratutako enpresak gaztelera hutsean jardun zuten, eta, AEDK jakinarazi due-

nez, hainbat gurasoren bisita jaso dute gertakari horren aurrean "haserrea azaltzeko".

Elkarteko ekintza taldeak plazaratutako prentsa oharrean jasotzen denez, "Udalak eredu izan behar du hizkuntza esku-bideen errespetuan" –oharra irakurgai dago *Goiena.eus* atarian–. Euren ustez, kontratatutako enpresa Zaragozakoa izateak ez du gertatutakoa "justifikatze" balio, eta etorkizunean "ardura gehiagoz jokatzeko" eskatzen diote Udalarri.

GOIENA ALDIZKARIA 2017-07-28 EGUBAKOITZA



Oinezkoei lehenetsuna emate aldera, espaloiak zabaltzea eta bidegorria egitea da lan horien helburua. XABI GOROSTIDI

Uribarri kalean, hirugarren fasea

Takolo-Goiru proiektua beste urrats bat egitera doa. Uribarrin espaloiak zabaldu eta bidegorria egingo da, Arrasate pasealekutik doan zatiarekin lotzeko. Lanak bi txandatan banatu dituzte, eta urte amaierarako amaitzea da aurreikuspena

Xabi Gorostidi ARRASATE

Herriko mugikortasuna hobetzea helburu duen Takolo-Goiru egitasmoa aurrerantz doa. Bederratzi fasetan banatu zen proiektua; horietatik bi eginda daude, eta hirugarreneko lanak aurreko astean hasi ziren.

Udala plazatik Iturripera

Hain zuzen, Udala plazako biribilguneetik Iturripera kiroldegirainoko tartean eragingo du. Lehenik eta behin, Uribarri etorbideko etxebizitzetako espaloiak berrituko dira, bai aurrealdetik, baita atzealdetik, errekarren albotik doan zatitik. Espaloiak berritzeaz gain, horiek zabaldu egingo dituzte, oinezkoentzako espazio handiagoak eskuratuzeko.

Espaloiak zabaltzeaz gain, bidegorria ere egingo da. Hori errekarren albotik doan zatian joango da eta Udala plazako

biribilgunera heltzerakoan egingo du bat Arrasate pasealekutik doan bidegorri zatiarekin. Behin espaloiak handituta eta bidegorria eginda, tarte horretako ur eta saneamendu sareak ere berrituko dira.

Urte amaierarako

Proiektuaren hirugarren faseko lanak Orsa garraio eta indusketaren enpresa donostiarrak egingo ditu, eta 554.503 euroko kostua izango dute.

Lanak pasa den astean hasi ziren, eta, dena ondo bidean, lau hilabeteko epean amaitzea

ESPALOIAK ZABALTZEAZ GAIN, BIDEGORRIA ERE EGINGO DA ERREKA DOAN ALBOTIK

da aurreikuspena, 2018a baino lehen erabilgarri izateko.

Lehenik eta behin, Udala plazako biribilguneetik Iturripera joaterakoan ezkerrean geratzen den espaloiko lanak egingo dira, eta ostean, errepidearen beste aldekoak egiten hasiko dira.

Trabak minimizatzen

Errepide alboan egiten diren esku-hartzeek eragina izaten dute oinezkoengan eta gidariengan. Azken horiei dagokienez, eragina oso txikia izango da. Lanak egiteko, errepide zati bat hesitu egin dute; horretarako, bi noranzkoetako erreaiak estutu egin dituzte. Abiadura murriztu beharko da tarte horietatik igarotzean, eta, oinezkoei dagokienez, eraginak ahalik eta txikiak izateko ahalegina egingo du Udalak.



1. fasea: Arrasate pasealekua

2015eko otsailean abiatu zen Takolo-Goiru proiektuko lehen fasea, Foruen plaza eta Udala plaza artean. Zirkulazioa ezabatu eta oinezkoentzat eta bizikletentzat mugatzea zen asmoa, baina, egun, zirkulazioa pasatzen da, abiadura murriztuagoan.



2. fasea: Alfonso VIII kalea

2016ko uztailaren 12an hasi ziren bigarren faseko lanak. Errepideari kale izaera emateko asmoz, espaloiak zabaldu ziren, errepidea estutuz, eta, horrez gain, aparkalekuak eta autobus geltoki bat egin zituzten Herri Eskola dagoen aldean.

Hurrengoa: ziuarrenik, Uribe auzoa

Proiektu gauzatzeko hurrengo urrats naturala D fasea izango litzateke; hau da, Uribe auzoa amaitzen den semaforodun bidegurutzetik Iturripera doan zatia, hain zuzen.

Jolas parkearen kokalekua zehazteko

Hasierako proiektuan, bidegurutze alboan jolas parke bat egitea aurreikusten zen. Uribe auzorantz lerratuta egitea zen hasierako asmoa, baina mugikortasun mahaian beste proposamen bat ateratu da: jolas parkea Erguin aldera lerratzea eta bidegurutzearen ordez biribilgunea egitea. Mugikortasun plana definitzeko egiten ari diren bileretan hartuko dute horri buruzko erabaki definitiboa.

Herritik sortuak, herriarendako

Arrasate-Oñati lehenik –1982–, San Silvestre ostean –1992–, Torreaurokoa gero –1998– eta Corpusetakoa azkenik –2003–; bata bestearen atzetik sortutako lau lasterketa, guztiak ere Oñatin atletismoarekiko dagoen zaletasunaren adierazle

Eneko Azurmendi OÑATI

Atletismoak sustrai sendoak ditu Oñatin. Ondo errotutako lau lasterketa daude herrian, baina horietako bat, sortzen lehena izan zena, hain zuzen, desagertzeko zorian dago. Izan ere, Antxintxiketan taldeak pasa den asteko bilera batean erabaki zuen ez zuela gehiago Arrasate-Oñati lasterketa antolatze-ko ardura bere gain hartuko eta, beraz, aurtengoa izango dela antolatzen duen azken urtea.

1982an ekin zion bideari herri lasterketa horrek, Oñatiko lagun talde baten eskutik. Juan Manuel Azpiazua *Klementx* lagun talde horren parte izan zen. "Behobia-Donostia lasterketan parte hartzeraz joan ginen lagun talde bat eta bueltan, Guria tabernan geundela, pentsatu genuen polita izango zela tankera horretako lasterketa bat egitea hemen, Arrasate-Oñati Oñatira, eta hala egin genuen", dio.

Hasierako urteetako zailtasunak ditu gogoan *Klementx*-ek, baita anekdota bereziak ere. "Gogoratzen dut lehenengo urtean txirrindularitza lasterketa batekin kointziditu zuela. Pentsa nolako kaosa sortu zen Elorregiko biribilgunean!", azaldu du.

Hasierako lagun taldeari Lai-xan Euskara Elkarteak eman zion jarraipena antolakuntzan –1992an– eta azkenengo urteetan, 2009az geroztik, Antxintxiketan taldea ari da zeregin horretan. Hala ere, aipatu moduan, aurten izango da azkena. "Lekukoa hartuko duen norbaiten bila ari gara, baina zaila izango da", adierazi du Antxintxiketan taldeko kide Jesus Zabaletak.

San Silvestre lasterketa
Arrasate-Oñati jaio eta hamar urtera, 1992an, San Silvestre

lasterketa sortu zuen herriko beste lagun kuadrilla batek, eta ideiarene jatorria, bitxia bada ere, leku berean dago. "Behobia-Donostia herri lasterketan parte hartzeraz joan ginen, eta, han geundela, Oñatin ere herri lasterketa bat egin behar genuela bururatu zitzaigun, eta urteko azken egunean, gainera, urtea ondo bukatzeko", dio Zabaletak.

Lehenengo edizioan arrakasta handirik izan ez bazuen ere, urteek aurrera egin ahala parte-hartzea haziz joan zen, eta 6-7 laguneko kuadrilla hura ez zen nahikoa horri guztiorri aurre egiteko. "Lasterketa antolatze-ko azpiegitura handirik ere ez genuen, eta, ikusi genuenean gehiegi zela, geroz eta parte-hartzaile gehiago zirela, Antxintxiketan taldearen esku utzi genuen antolakuntza, 2009an. Ni ere talde horren barruan nago, eta gaur egun ere oraindik laguntzen dut, baina bigarren plano batean, ardura gutxiagorekin", azpimarratu du Zabaletak.

Torreauroko krosa

Aurten 20. urteurrena bete duen Torreauroko krosa izan zen hirugarrena. 1998. urtean, seme-alabak Aloña Mendiko atletismo sailean zituen guraso talde batek antolatu zuen lehenengo lasterketa hori, Juan Mari Andueza buru zela –duela lau urte hil zen–. Santi Mendiola guraso talde horretako kide zen, eta honela azaldu du lasterketaren sorrera: "Garai

AURTENGOA IZANGO DA ANTIXINTXIKETAN TALDEAK ANTOLATUKO DUEN AZKENENGO ARRASATE-OÑATI

hartan guztiok Olatera joaten ginen korrika egitera eta Anduezak behin esan zuen polita izango zela Torreaurotik Olatera joan-etorria eginaz herri lasterketa bat egitea".

Hasierako urte haietan, Securitasa aseguru etxearen bultzada "ezinbestekoa" izan zen lasterketa hori aurrera eramateko, Mendiolaren esanetan. 10. edizioaren ostean, Antxintxiketan taldeak hartu zuen lasterketa hori antolatze-ko ardura eta azken bi edizioetan, berriz, Abixaran taldeak antolatu du.

Corpusetako lasterketa

Lau lasterketatik herrikoia ez den bakarra, Corpusetako lasterketa, 2003an sortu zuen Jesus Arregik, Antxintxiketan taldea sortzarekin batera. "Beti gustatu izan zait atletismoa, eta lasterketa bat antolatzea bururatu zitzaidan. Gainera, Corpus bezperan, jende asko egoten da Oñatin, eta animatu egin nintzen", adierazi du Arregik.

Hiru urteren buruan, 2006an, maila gorenera iritsi zen lasterketa. Izan ere, Zersenay Tadese eritrearra 10.000 metroko munduko errekorra hausteko asmatan etorri zen Oñatira –ez zuen lortu–. Horretarako, zirkuitu homologatu bat egin behar izan zuten eta orduetik aurrera mundu mailako hainbat korrikalari etorri izan dira lasterketa horretarako –Chema Martinez, Peter Cheruiyot Kirui...–.

2013tik aurrera, berriz, Euskal Herriko korrikalari onenetakoak bakarrik etorzen dira, aurrekontua dela eta. "Pentsa, 2006an, 24.000 euroko aurrekontua izan zen", azaldu du Arregik.

Antxintxiketan antolatu du lasterketa 2003tik gaur egunera arte –iaz, 2016an, ez zen egin–.



Zersenay Tadese helmuga zeharkatzen, 2006an. JESUS ARREGI



Arrasate-Oñati lasterketarekin batera, Zubilaga-Oñati ere egin izan da. PLACIDO RUIZ



Torreauroko krosa antolatu zuen lagun kuadrilla. SANTI MENDIOLA



Oñatiko San Silvestre lasterketa sortu zuteneko batzuk. JESUS ZABALETA

13. UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA egin klik!

Jaso ditugu lehen argazkiak!



ITSASOA, KONTXATIK | Argazkia: Amador Fernandez Pastor



MURUKO GURUTZEA | Argazkia: Andoni Jauregi



ERLEA ETA LOREDUN LANDAREA ARANERREKAN | Argazkia: Ibon Eraña



LANDAKO PARKEAN | Argazkia: Susana Sanchez



KURTZEBARRI, OTALA ZELAITIK | Argazkia: Iker Altuna Arenaza

Egin klik eta bidali **poltsikoko telefonoarekin, argazki kamerarekin edo tabletarekin ateratako udako argazkiak!**

Posta elektronikoz (argazkiak@goiena.eus) edo Whatsapp/Telegram bidez (688 69 00 07) bidal ditzakezu argazkiak!



Argazki guztiak fotoblog honetan: blogak.goiena.eus/argazkiak

Sariak

LEHEN SARIA: LENOVO TAB 2 A10-30 tableta

GOIENA SARIA*: Bi pertsonarendako bazkaria edo afaria Gure Ametsa jatetxean.

* Eraman GOIENA edo 'Puntua' oporretara, eta argazki originalenak, kuriosoenak, graziosoenak saria izango du. Animatu eta bidali zuen argazkia!

PUBLIKOAREN SARIA: Zumaiaiko Zelai Talasoterapiari bi pertsonarendako zirkuitu termala + Zelai menua

PARTE-HARTZE SARIA: Intersport Loramendin erabiltzeko 100 euroko erosketa-txartela. (Publikoaren Saria aukeratzeko parte hartzen dutenen artean zozketatuko dugu)



ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

EROSKI
ARRASATE

GURE AMETSA
JATETXEA

ARRASATE BIDAIK

INTERSPORT
LORAMENDI ZUMARRAGA



AZKEN BERBA

IDOIA ETXEBERRIA

Interneti galdetzen

Astebururako plan gabe nengoen. Eta Interneti galdetu nion, ea zer egin nezakeen. Data jarri nuen bilatzailean. *Mendi ibilaldia ilargipean*, hori izan zen bere lehen erantzuna. Zoragarria iruditu zitzaidan: ilargi betearekin, mendira! Zelako erromantikoa... Eta halaxe joan nintzen Txindokira, gauez, egunsentia ikustera. Aurrez ezagutzen ez nituen beste hogeita hamar lagunekin. Mendi talde batekin, alegia. Esperientzia ederra izan zen.

Hondarribiko bikote bati antzekoa gertatu zitzaion. Ez zekiten asteburuan zer egin. Eta Interneti galdetu zioten. *Erreka eta bainatu* hitzak jarri zituzten. Hondartzako turismotik ihesi zebiltzan. Eta hara non, Usakoren berri eman zien. Zoragarria iruditu zitzaion: igerileku naturala, menditik datorren urarekin! Zelako berezia... Eta halaxe joan ziren Oñatira, Usakon bainatzera. Giltzatik egin zuten salto, Tarzan eta Jane bailiran. Esperientzia ederra izan zen.

Hori bai, normalean hobea da lekuak gure kabuz eta jendeari galdetuz deskubritzea. Internetek jendez lepo dauden tokietara bidaltzea delako ohikoena, "plan berezia" dela esanez. Horregatik, zenbait jatetxetan kartel hau jartzen hasi dira: *Ez gaude TripAdvisor-en*.

BUKATZEKO

Muga barik Santiago bidean barrena

Denborarekin, urratsez bete da Santiago bidea. Askotariko jendea aurki daiteke bertan. Zenbaitek lehen aldiz dihardute. Beste batzuek, ostera, bidaia sorta bat daroate soinean, esperientzia errepikatze beharrak bultzaturik

Iker Oñate ARETXABALETA

Asko dira Santiago bidea egitea erabakitzen duten erromesak. Batzuek sinesmenak bultzaturik zapaltzen dute ibilbidea; beste batzuk, berriz, aisialdirako planak eramatean ditu bertara. Bada, azken urteetako joera ikusirik, argi dago askotariko jendea aurki daitekeela bidean; Santiagok ez du mugarik ezarria, nor bereak jartzen ditu.

Besteak beste, Marcial Perezek -80 urteko aretxabaletarra- eginkoak erabat zokoraturik utzi du Santiago bideak adin muga duen ustea: ibilbidearen zati bat egin zuen ekainaren 12tik uztailearen 10era bitartean, Errioxako Briones herritik -bere jaiotetxea- hasita. "Adin jakin batera helduta, jendea zahar sentitzen da, baina neu ez naiz uste horretakoa. Badakit, saiatuz gero, helburuak erdietsi ditzakegula. Borondate kontua izaten da sarri", azaldu du Perezek.

Dena den, aitortu duenez, aurtentzen, beste urteetan baino zailtasun handiagoarekin egin du bidea. 28 etapa behar izan zituen Santiagora iristeko; egunean, hogeik kilometro pasa egiten zituen. "Aurtentzen egunik bidea 23



Marcial Perez, Santiagorako bidean. MARCIAL PEREZ

etapatan amaitu nuen urte batean", esan du.

Hala ere, Perez "gustura" da egindakoarekin: "Egin dudana egitea ez da erraza; beraz, beste aldi batzuetan baino gogobetearago nago. Finean, dudan adinarekin Santiago bidea bukatzea ez da horren ohikoa".

Bestalde, aipatu beharra dago goizean bakarrik egiten zuela ibilaldia, azaldu duenez, "oinez ibiltzeko giro ona zegoenean; bero uneak bizi beharrik izan gabe". Zehatz esanda, 06:00 inguru irteten zen lo tokitik, frontalarekin; eta, hain zuzen, eguerdia iritsi aurretik amaitzen zituen ibilaldiak.

Santiagora zazpigarrenez

Santiago bidea egiten duen zazpigarren aldia du Perezek aurtengoa. "Niretzat, esangura berezia du esperientziak. Askotariko jendeari elkartzeko zara bidean eta laguntzeko prest daude guztiak. Behin esperientzia dastatuta, errepikatze gogoa datorkizu", aitortu du Perezek.

Aipatu beharra dago erretiratu ostean egin zuela lehenengoz Santiago bidea, 60 urterekin. Orduan, baina, beste kide batzuekin batera bizi izan zuen esperientzia, osteko aldi moduan. Dena den, azken bost alditan nahiago izan du bidea bakarrik egin. "Erosoago sentitzen naiz bidea bakarrik egitean", argitu du.

Bada, urte horietan guztietan, modu ezberdinetara dastatu du esperientzia; oinez ez ezik, bizikleta gainean ere egin du bidea, esaterako. Etapa kopurua eta irteera herria ere aldatu izan ditu denborarekin.

INFORMA ZAITEZ ABUZTUAN!

**ABUZTUAN ERE DEBAGOIENENKO ALBISTEAK
GOIENA TELEBISTAN
ETA GOIENA.EUS ATARIAN.
ONDO IBILI OPORRETAN!**

goiena
ZU HEMEN ZAUDE